

4- IRABAZI ITURRIAK

Gure diru iturria familia etorkinetako haurren kalitatezko zaintza inklusiboa egiten duen zerbitzu publikoa da. Beraz, **erabileragatiko saria** da gure irabaziak lortzeko modua, hau da, ordainketa zerbitzu baten truke egiten da.

Aurreko ataletan esan dugun bezala, gure zerbitzua erabiltzaileentzat doakoa izan behar dela uste dugu, eta, ondorioz, zerbitzuak **diru publiko**arekin ordaindu behar direla. Gure aburuz, beharizan kolektibo baten aurrean gaude eta **baliabide publikoak** horiei erantzuteko daude. Instituzioen konpromisoa ezinbestekoa ikusten dugu egiteko honetan. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko udaletxera jo dugu hasteko, bakoitzari **ituna** proposatuz. Beraz, gure soldata eta gastuetarako diru sarrerak **sinatutako hitzarmen**etatik etortzea da gure helburua. Hau da, gizarteari zerbitzua, hileroko diru-kopuru baten truke.

Hala ere, baliteke, instituzioetariko batek gure diru sarrera **erabiltzaileei egindako diru-laguntzen bidez** bideratu nahi izatea. Kasu horretan, egoera ezberdinaren aurrean egongo ginateke:

Diru sarrerei dagokionez, hileroko **ordainketa errepikarien** bidez egingo lirateke. Prezioak berriz, **finkoak eta merkatu-segmentuaren eta honen ezaugarri berezien araberakoak** izango lirateke.

Zerbitzuaren prezioa eguneroko zerbitzu-orduen araberakoa izango lirateke, hau da, prezio modalitae ezberdinak egongo lirateke, modalitate bakoitzaren hileroko kopurua berdina izango zelarik.

Baina, esan bezala, guzti hau, zerbitzuak erabiltzaileek beraiek ordainduko balute izango litzateke. Hau da, hitzarmenaren orde, erabiltzaileentzako diru-laguntzen bitartez egitea proposatuk baligukete.

Guk lehenengo aukeraren alde borrokatuko dugu. Hala ere, gastuetarako hitzarmena lortuko bagenu, soldatak erabiltzaileek jasotako diru-laguntzen bitartez jasotzea onartuko genuke. Gastuetarako hitzarmenik ez balego, birplanteatu egin beharko genituzke prezioak e.a. benetan aurrera egin dezakegun ikusteko. Printzipioz, ez dugu gure burua agertoki horretan jartzen. Gure helburua lortzeko negoziatuko dugu lehenik.